

Xabier Irujo Ametzaga

Gizakia ez da aingeru

2003ko udaberrian ezagutu nuen Joxe. Bigarren tesiko zuzendari izan nuen lau urtez: elkarrizketak eskola izan ziren, bai eta lurrikara ere. Joxe ezagutu aurretik idatzia nuen *Etika eta instintua* liburua, non etikaren guztizko animaltasuna aldarrikatu nuen. Noski, etologia azkar bihurtu zen gure elkarrizketen ardatz nagusia. Joxek ez zuen sinesten gizakiaren sublimazioan. Izan ere, idatzi zuen, «gizona aberea da, abere hutsa». Ez da iraina, ezta gutxiespena ere, baizik eta funtsezko egia baten aitortza: gure errealitate biologikoa da gure errealitate bakarra, gure katedrala, gure izaeraren eta existentziaren hazi, erro eta adar.

Haren begiradak ideologiaren maskarak erretzen zituen. Ez zuen sinesten animaltasun horretatik at garatutako ideiak errealitateari aurre egiteko gai zirenik. Askatasunaz ari zenean, ez zuen ametsik saltzen. Konrad Lorenzek edo Edward O. Wilsonen bezala, askatasun mugatu eta erreal baten alde egin zuen. Supergizakiaren mitoek –heziketaren, tekniken, sistemaren bidez gizakia ‘hobetu’ nahi dutenek– alienazioa besterik ez dute sortzen. Tigrea zirkuan treba daiteke, baina ez dio bere barne izateari utziko.

Joxerekin izandako elkarrizketek barrenetik astindu ninduten, eta haren ahotsa behin eta berriz itzultzen zen, itsasgora bezala, haritzaren hostoen artean dabilen haize fina bezala, zalantza egonkor baten modura.

Urteak pasa eta Haritz Azurmendiren tesiko mahaikide izatea egokitu zitzaidan. Haritzek erakutsi zuen moduan, Joxeren *Gizona abere hutsa da* ekaitz baten erdian jaio zen: diktaduraren amaieran, trantsizioaren hasierako korrontetean, non euforia eta promesa politikoak elkarrekin elikatzen ziren, inongo sustrairik gabe. Joxek, ordea, ez zuen gizakia pentsatu naturaz gaindiko emaitza aske eta garaile gisa irudikatzen zuten ikuspegi laudakor horietan oinarritutako itxurazko helburue-

tan. Testuinguru hartan, haren pentsamendua heresia zen: ez zuen ezkerra kritikatu eskuinaren ikuspegitik, baizik eta ezker horrek berak irentsi zuen fede laiko baten izenean.

Gure elkarrizketetan behin eta berriz ageri zen ideia bat zen: antropologia berri baten premia. Ez marxismoa zaharbertitzeko, ez kristautasuna berrirudikatzeko, baizik eta gizakia bere osotasunean ulertzeko: bere gorputzean eta joera eta jokabide soziobiologikoetan. Pentsamenduaren indarra ez datza kontsolamenduan. Azurmendik, zientziaren muturretatik tiraka, diagnostiko antropologiko bat marraztu zuen: gizakia ez da aingeru eroria, ez da Jainkoaren antza duen izaki razionala; animalia da, hutsa. Eta hor hasten eta amaitzen da dena. Askapenaren bidea da diagnostiko posible bakarra: gure oinarriak aitortu, eta hortik abiatu. Gizakiaren izaera biologikoa da gizakiaren aberri bakarra.

Pentsamenduak zartakoa behar zuela uste zuen Joxek, eta horretan tematu zen: egia deserosoaren alde. Eta haren ahotsa oraindik da beharrezkoa: ez baikara, hemen eta orain, gure izaeraren egia onartzeko gai. Hitz batean, biofobiari aurre egin behar zaio filosofiatik. Asko dago konpontzeko: animalia izatearen errefusa, jatorri biologikoaren onarpen eza, gorputzaren gaitzespena, instintuaren beldurra, izaera zoologikoa izatearen ukazioa, giza espeziearen idealizazioa eta patologizazioa...

Joxeren lanak gaurkotasun bizia du, hain justu, indarra dagoelako gizakiaren inguruko diagnostiko egoki batean. Onar dezagun lehenbailehen gizakia animalia hutsa dela, ez aingeru, ezta arrazoimen askearen eraikin gardena ere, baizik eta animalia hutsa: hezur, odol eta haragi; eta, bestetik, Oteizaren ikuspegiaren ildora, onar dezagun animaltasun hutsaren huts hori gizakiaren proiektuak garatzeko espazio irekia dela, baina ez amaiezina; askatasun mugagabea, izatez, utopia besterik ez baita.

Jatorriz gara beti izan garena, eta izaten jarraituko dugu, onartu ala ez.